


Untsin – Bidasoa

Orientazio eta bizikleta martxa



ZER DA?

Euskal Herriko gazteen topaleku izatea bilatzen duen egitasmoa da. Ziburu herrian orientazio-proba gauzatzen da eta Ziburutik Bera bitarte berriz bizikleta-martxa.

Ikastolen Elkartek HEZHI proiektuaren sustenguz eta Ziburuko Piarres Larzabal Kolegioaren laguntzarekin antolatzen duen ekimen honek honako helburu hauek ditu:

- Bizipen positiboen bidez Euskal Herriko gazteen saretzea.
- Euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua indartzea.
- Errealitate soziolinguistiko anitzetako gazteen joslekua euskara izatea.

Noiz?

2026ko urriaren 23 eta 24an.

Non?

Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan eta Ziburu-Bera bide-berdean.

PREZIOA

40€/ikasleko autobusa barne.

IZEN-EMATEA

Galdetegi honetan



Bidasoako I. Orientazio eta Bizikleta martxa 2026

Informazio orokorra

Sarrera

Euskal Herriko Ikastolak, Zirimola Ikastolen Aisialdi Taldearen bitartez, Nafarroa Garaiko, Ipar Euskal Herriko eta Erkidegoko DBH zein kolegioko 3. mailako 200 ikaslerentzat 2 eguneko egonaldia antolatuko du datorren urriaren 23 eta 24ean Ziburun.

Bidasoako I. Orientazio eta Bizikleta-martxa Euskal Herriko Ikastolen Elkartearen ekimenez eta HEZHI proiektuaren sustenguz garatuko den proiektua da. Bidasoaren bi aldeetako ikasleak elkarrekintzan eta elkarrekin, esperientzia hezigarri bezain aberasgarria biziko dute.

Errealitate soziolinguistiko anitzetako gazteen topagune izango den egonaldi honetan, kultura, hizkuntza, jarduera fisikoa, harremanak eta gozamena erdigunean ezarriko dira.

Egonaldiaren azalpena

Urriaren 23ko arratsaldean elkartuko gara parte-hartzaile guztiak Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan. Bertan, ongi etorria eta elkar-ezagutza jolasak egingo dira harremanak indartzeko helburuarekin. Jarraian, PLS kolegiotik Ziburu herriraino eramango gaituen Orientazio-gynkana bat burutu beharko dute ikasleek. Gynkanan, proba ezberdinak gainditu beharko dituzte taldeka, azken proba guztien artean gainditu beharko dutelarik Ziburuko pilota-plazan. Gauean, Kolegioan gaubela eder bat izango dute eta bertan lo egingo dugu guztiok.

Urriaren 24ko goizean, gosaldutik ondoren, bizikletaz martxa abiatuko dugu Ziburutik, Hendaia hondartzara, hondartzatik Behobiara (Anoa puntua) eta Behobiatik Berara



ailegatuz. Beran, parte-hartzaile guztientzat bazkaria banatuko da. Bazkal ostean, ikasleak etxera itzuliko dira.

Gazteek ibilbidea burutzeko bi aukera izango dituzte, ibilbide motza (Anoa punturaino) ala luzea (Beraraino) egitea.

Zirimolako hezitzaileek dinamizatuko dute egonaldia, baina ikastetxeetako irakasle-erreferenteen parte-hartze aktiboa ezinbestekoa izango da kudeaketa eta antolaketa egoki baterako.

Izen-ematea

Orotara, gehienez, 200 ikaslek parte-hartu ahal izango dute.

Izen-ematea ikastetxeek burutu beharko dute. Ikastetxe bakoitzak, parte-hartuko duten ikasle kopurua eta irakasle/hezitzaile kopurua zehaztu beharko ditu. Heldu erreferenterik gabe ezin izango da egonaldian parte hartu.

Izen-emateko epea maiatzak 29tik ekainak 22 bitarte izango da.

Ikasle bakoitzaren kostea 40€-koa izango da. Prezio honetan, autobusak, ostiraleko gosaria, hamaiketakoa eta bazkaria eta ikasleentzat kamiseta bana izango dira. Ikastetxeko arduradunak zein berarekin datozen irakasle-hezitzaileek ez dute ordaindu beharrik izango.

Gehienezko kopurua baino eskaera gehiago baldin badaude, Zirimola Aisialdi Taldeak hautatuko du parte-hartuko duten ikastetxeak zeintzuk diren. Hautatuak izan direnei zein izan ez direnei bidaliko zaie jakinarazpena ekainak 29rako .

Irailaren hasieran, lehen online bilera bat egingo da xehetasunetan gehiago sakonduz eta egon daitezkeen zalantzak argituz.

Antolaketa orokorra

Ikastetxe bakoitza arduratuko da ikasleen zein hauen bizikleten garraioa antolatu eta kudeatzeaz.

Bizikleta-martxan zehar anbulantziak izango dira txirrindularien ongizatea bermatzeko.

Ostegun gaueko afaria ikasleek ekarri beharko dute. Ostiraleko gosaria eta bazkaria berriz, antolakuntzak prestatuko du. Baita bizikleta-martxako anoa-puntua ere.